

Platereko azken hondarrak jaten ari nintzela sartu ziren biak sukaldera.

- Beno Matxin, banao! - esan zidan Erramunek inongo azalpen gehiagorik eman gabe.

Bat-batean morokila harri bihurtu zitzaidan urdailean. Atsekabe itzela hartu nuen momentu hartan. Hitz egin nahi banuen ere, ezin nuen hitzik ezpainera ekarri, zizipaza besterik ez nuen egiten. Negarra begietara hurbiltzen ari zitzaidala nabaritzean altxatu eta Erramunengana jo nuen korrika.



- Ez zaitez joan! Geratu zaitez gurekin! - esan nion neukan indar guztiarekin estutzen nuen bitartean.

Kokoriko ipini zen eta aurpegia esku biez hartuta, begietara begira, bizitza osoan gogoratu dudana esaldia esan zidan:

- Neke txikia eraman nahi ez duenak ondoren ditu neke haundi eta lanak. Sikatu itzazu negar anpuluok, Matxin! Egongo gara, lasai! - besarkatu eta baserriko muinoetan barna desagertzen ikusi nuen.

Gaur, 2013ko azaroaren 15ean, sorbalden gaian laurogeitaka urte ditudala herriko kultur etxean antolatutako argazki erakusketa noiz zabalduko nago, "Burdinazko hesia 75 urte ondoren".

Atea zabaltzera andre betaurrekodun bat etorri da. Nerbioei ezin eutsirik nago, garaiko oroitzapen guztiak tropelean etorri zaizkit burura, begiak umeldu egin zaizkit. Malkoak masailetan behera ditudala ilobari eskutik heldu diot.

- Eutsiozu neure eskuari Mattin!

• • • • •
"Eskuari helduta ibili zen matxinsaltoa"

Jon Txasko Meabe

45 urte - Berio

2013 - E kategoria

1. saria

• • •